

**HBk 'Abril txostena' kritikatu du**

DONOSTIA

HBk kritikatu egin du Abril txostena izenaz ezaguna den Gizarte Segurantzaren balizko erreforma. Koalizio politiko honen iritziz, Abril Martorell-en proposamena «osasun munduaren pribatizaziozko pausua da, sektorerik pobbreenen kalterako».

Diutatu Kongresuak agindutako azterketa honek, PSOEren irizpideak utzi ditu agirian, HBren esanetan, «Gizarte Segurantzaren suntsitzeko aurrerapausua bait da». HBk azaldu duenez, «oraingo osasun sistema agortuta dago, bai, baina hau ez da erretiratu eta langileen abusuagatik, Administrazioak burutu izan duen gestio eskasagatik baizik». HBren ustez, gobernu espainiarrek ez ditu okerrak zuzendu, «osasungintza publikoa erabili izan dute beraien adiskideentzako enplegu bulego gisa». Ospitaleek hobeto funtzionatu dezaten apostu egiteko eskatu du HBk, «osasun sistema publikoaren benetako berregituraketaren bidez».

**Okupatzaileek Gasteiz eta Otazuko etxeen desalojoa salatu zuten**


Arabako herriko okupatzaileak irailean izango dira epailearen aurrean

**G**asteizen, Adurtza auzoan eta Otazu herri arabarrean izan diren okupazioen desalojoak salatu zituen atzo prentsaurrekoan gazte talde batek. Haien esanetan, bizi nahiz iharduera kulturalak egiteko gazteok dauzkaten beharrak «ikaragarriak» dira.

LUIS KARLOS GARCIA / GASTEIZ

Iragan asteazkenean Gasteizko Cercas Bajas kalean dauden KAS enpresaren bulego zaharrak okupatu zituzten, «gazte gasteiztar batzuen beharrian itzelak aintzat harturik». Aldez aurretik, okupazioa iragarri zioten jabea zen Knörr familiari, «etxerako inolako planik» ez zegoela jakin eta gero. Hala ere, ostegunean jabeak azaldu eta «guk hitz egiteko izan genuen jarreraz baliatu ziren etxetik atera erazteko», esan zuten gazteek.

Jabeen asmoa «espekulazioa» da okupatzaileen ustez. Jabeek hau «aitortu» behar izan zutela komentatu



Gazteek «etxebizitza izateko eskubidea» aldarrikatu egin nahi dute. OIALDE

zuten gazte talde honek. «Zein da, bada, lehentasuna duen eskubidea, ondasun pribatuarena ala etxebizitza izatearena», galdetu zuten gazteek. Horrelako kasuetan lehendabizikoa nagusi dela «agerian» gelditu da haien ustez.

Bestalde, 'Adurtzako Gazteak' elkarteak okupatuta zituen bi etxe

«hustu» zituzten uztailearen 8an izen bereko auzoan. «CAMPSArenak ziren baina Polizia etorri zen Polizia Nazionalaren Zuzendaritza Nagusiarenak zirela esatera», aipatu zuten gazteek. Azkenik, Otazuko etxe bat duela urtebete okupatu zuten gazteak irailean epaituko dituztela salatu zuten.

**Txanpon makinek jokaturako % 70 banatu beharko dute**

DONOSTIA

Txanpon makinek apostu guztien % 70 eman beharko dute gutxienez saritan, Eusko Jaurlaritzaren Barne sailak erabaki duenez. Arau hau 'B' mailako makinei dagokie.

Manatu honek mota honetako makinaren ekoizpena arautzeko balioko du, harik eta Legebiltzarrak euskal gobernuak zehaztuko duen jokoaren legea onetsi arte. Aginduaren arabera, partida bakoitzeko gehienezko prezioa 25 pezetakoa izango da, eta saririk oparoena 12.500 pezetakoa. Saritan banatuko den portzentaia % 70ra iritsiko da gutxienez. 'C' sailako makinatan 600 pezetakoa izango da partidaren gehienezko ordaina. Saririk oparoenaren muga apostuaren balioa bider 5.000 pezeta izango da gehien jota. Banatuko den dirutzaren portzentaia apostuaren balioaren % 80tik gorakoa izan beharko du derrigor.

**ESPAINIAKO LOTERIA NAZIONALA**

**1991KO UZTAILAREN 27EKO ZOZKETA**

Hamabi serie 100.00 txartelekoa bakoitza

ZOZKETA  
**34**  
**91**

Zenbaki sarituei dagozkien irabazien zerrenda, azken zifiraren arabera sailkatuak

Sari hauek, kobratu ahal izango dira 1991ko urriaren 28a barne. ORDURA ARTE.



0	1	2	3	4	5	6	7	8	9
Zenbakiak	Zenbakiak	Zenbakiak	Zenbakiak	Zenbakiak	Zenbakiak	Zenbakiak	Zenbakiak	Zenbakiak	Zenbakiak
48700.....50.000	48701.....60.000	48702.....50.000	48703.....50.000	48704.....55.000	48705.....50.000	48706.....55.000	48707.....50.000	48708.....55.000	48709.....50.000
48710.....50.000	48711.....50.000	48712.....50.000	48713.....50.000	48714.....55.000	48715.....50.000	48716.....770.000	<b>48717.....20.000.000</b>	48718.....770.000	48719.....60.000
48720.....50.000	48721.....60.000	48722.....50.000	48723.....50.000	48724.....55.000	48725.....50.000	48726.....55.000	48727.....50.000	48728.....55.000	48729.....50.000
48730.....50.000	48731.....50.000	48732.....50.000	48733.....50.000	48734.....130.000	48735.....50.000	48736.....55.000	48737.....50.000	48738.....55.000	48739.....50.000
48740.....50.000	48741.....50.000	48742.....50.000	48743.....50.000	48744.....55.000	48745.....50.000	48746.....55.000	48747.....50.000	48748.....55.000	48749.....50.000
48750.....50.000	48751.....50.000	48752.....50.000	48753.....50.000	48754.....55.000	48755.....50.000	48756.....55.000	48757.....50.000	48758.....55.000	48759.....50.000
48760.....50.000	48761.....50.000	48762.....50.000	48763.....50.000	48764.....55.000	48765.....50.000	48766.....55.000	48767.....50.000	48768.....55.000	48769.....50.000
48770.....50.000	48771.....50.000	48772.....50.000	48773.....50.000	48774.....55.000	48775.....60.000	48776.....55.000	48777.....50.000	48778.....55.000	48779.....50.000
48780.....50.000	48781.....50.000	48782.....50.000	48783.....50.000	48784.....55.000	48785.....50.000	48786.....55.000	48787.....50.000	48788.....55.000	48789.....50.000
48790.....50.000	48791.....50.000	48792.....50.000	48793.....50.000	48794.....80.000	48795.....50.000	48796.....55.000	48797.....50.000	48798.....55.000	48799.....50.000
99700.....50.000	99701.....60.000	99702.....50.000	99703.....50.000	99704.....55.000	99705.....50.000	99706.....55.000	99707.....50.000	99708.....55.000	99709.....50.000
99710.....50.000	99711.....50.000	99712.....50.000	99713.....50.000	99714.....55.000	99715.....50.000	99716.....55.000	99717.....50.000	99718.....55.000	99719.....60.000
99720.....50.000	99721.....60.000	99722.....50.000	99723.....50.000	99724.....55.000	99725.....50.000	99726.....55.000	99727.....50.000	99728.....55.000	99729.....50.000
99730.....50.000	99731.....50.000	99732.....50.000	99733.....1.050.000	<b>99734.....40.000.000</b>	99735.....1.050.000	99736.....55.000	99737.....50.000	99738.....55.000	99739.....50.000
99740.....50.000	99741.....50.000	99742.....50.000	99743.....50.000	99744.....55.000	99745.....50.000	99746.....55.000	99747.....50.000	99748.....55.000	99749.....50.000
99750.....50.000	99751.....50.000	99752.....50.000	99753.....50.000	99754.....55.000	99755.....50.000	99756.....55.000	99757.....50.000	99758.....55.000	99759.....50.000
99760.....50.000	99761.....50.000	99762.....50.000	99763.....50.000	99764.....55.000	99765.....50.000	99766.....55.000	99767.....50.000	99768.....55.000	99769.....50.000
99770.....50.000	99771.....50.000	99772.....50.000	99773.....50.000	99774.....55.000	99775.....60.000	99776.....55.000	99777.....50.000	99778.....55.000	99779.....50.000
99780.....50.000	99781.....50.000	99782.....50.000	99783.....50.000	99784.....55.000	99785.....50.000	99786.....55.000	99787.....50.000	99788.....55.000	99789.....50.000
99790.....50.000	99791.....50.000	99792.....50.000	99793.....50.000	99794.....80.000	99795.....50.000	99796.....55.000	99797.....50.000	99798.....55.000	99799.....50.000
<b>Amaierak</b>	<b>Amaierak</b>	<b>Amaierak</b>	<b>Amaierak</b>	<b>Amaierak</b>	<b>Amaierak</b>	<b>Amaierak</b>		<b>Amaierak</b>	<b>Amaierak</b>
6561.....125.000	6132.....125.000	433.....25.000	734.....80.000	415.....25.000	486.....30.000			0988.....130.000	249.....25.000
851.....25.000	9652.....125.000	863.....25.000	794.....30.000	565.....25.000	6.....5.000			3928.....130.000	19.....10.000
01.....10.000	342.....25.000	913.....25.000	844.....30.000	75.....10.000				8.....5.000	
21.....10.000			854.....30.000						
			34.....30.000						
			4.....5.000						

ZOZKETA HONEK 4.386.120 DEZIMO SARITU ADJUDIKATZEN DITU, GUZTIRA 4.200.000.000 PEZETA

<b>SARI BEREZIA</b> 246.000.000 pta. 99734 zk. LEHEN SARIA	FRAKZIOA	SERIE	PILATUTAKO SARIA	HERRIA
	3.	8.	250.000.000	ZENTRONIKO